

83. FITXA Energia berriztagarriak eta biltegitratzea sustatzeko proiektu berritzaileetarako eta sistema termiko berriztagarriak ezartzeko pizgarri-programa (Energia berriztagarri berritzaileak)

Nori zuzendua: Pertsona juridikoak, publikoak zein pribatuak, legezkoak, behar bezala eratuak eta dagokion erregistroan behar bezala inskribatuak, bai eta aurrekoen elkarteak ere; jabeen erkidegoak (4. eta 5. pizgarri programak)

Sarbide-esteka: <https://www.idae.es/ayudas-y-financiacion/programa-energias-renovables-innovadoras>

Erreferentziazko araudia: [TED/765/2024 Agindua, uztailaren 22koa, energia berriztagarrietako eta biltegitratzeko proiektu berritzaileetan inbertitzeko eta sistema termiko berriztagarriak ezartzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituen \(Energia berriztagarrien berritzaileen programa\), Europar Batasunak finantzatutako Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan - Next Generation EU.](#)

Eremuak: Energia berriztagarriak

Zenbatekoa: 250.000.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/09/30eko 9:00etatik 2024/11/18ko 12:00etara.

Laburpena

Agrivoltaikan, fotovoltaiko flotatzailean, azpiegiturretan, kontsumitzaile kalteberen partaidetza duten autokontsumo kolektiboetan zein bero-ponpa berriztagarriko instalazioen proiektuetan inbertitzeko laguntzak norgehiagoka erregimenean emateko lehen deialdia da hau, Europar Batasunak finantzatutako Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan: **NextGeneration EU.**

Deialdi hau kokatzen da «Energia berriztagarriak hedatzea eta integratzea» deritzan 7. osagaiko «Energia berriztagarri berritzaileak garatzea, eraikuntzan eta produkzio-prozesuetan integratuta» deritzan 1. inbertsioan eta PRTRko «REPowerEU» 31. osagaiko (C31) «Autokontsumo berriztagarria, kontagailuaren atzean biltegitratzea eta energia-komunitateak» deritzan 1. Inbertsioan; eta horiei lotutako helburuak lortzen lagunduko du, Europako eta estatuko MRR eta PRTR arauen arabera.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

(Ikusi xehetasun tekniko guztiak oinarrien I. eranskinean)

1. pizgarri-programa: Biltegitratzea duten instalazio agrivoltaikoko proiektu berritzaileak:

Agrivoltaikotzat hartzen dira jatorriz nekazaritza-erabilerarako den lur-azalera beraren gainean, nekazaritza-ekoizpenerako eta energia fotovoltaikoa sortzeko erabilera konbinatua egiten duten proiektuak, betiere nekazaritza-erabilera lehenesten bada erabilera nagusi gisa eta energia-ekoizpenak bigarren mailako helburua badu. Ez da agrivoltaikotzat hartzen laborerik gabeko lursail zati batean eguzki-panelak pilatu eta lursailaren gainerakoari nekazaritza-erabilera soilik ematea, nahiz eta programa honek eskatzen dituen baldintza teknikoak orokorrean bete.

Programa horren barruan, hiru azpiprograma abiarazten dira, sorkuntza fotovoltaikorako egiturak laborantzan duen kokalekuaren arabera.

- 1.1. pizgarri-programa: Agrivoltaikoa laboreekin tartekatua.
- 1.2. pizgarri-programa: $2\text{ m} \leq h \leq 4\text{ m}$ laboreen gainean egitura duen agrivoltaikoa.
- 1.3. pizgarri-programa: $h > 4\text{ m}$ laboreen gainean egitura duen agrivoltaikoa.

Teknologia fotovoltaikoa baino ezin izango da erabili. Instalazioak isolatuta edo sarean konektatuta egon daitezke, eta sortutako energia saltzera edo autokontsumora bidera daiteke.

Sorkuntza fotovoltaikoko instalazioaren potentziak **200 kWp** baino handiagoa izan behar du. Hala ere, eskabide berean sartu ahal izango dira banaka 15 kWp-etik gora eta guztira 200 kW-eko edo gehiagoko potentzia batzen duten nekazaritza-instalazioen proiektu elkartuak.

2. pizgarri-programa: Biltegitratzea duten espazio artifizialetako instalazio fotovoltaiko flotatzaileen proiektu berritzaileak.

Fotovoltaiko flotatzailetzat jotzen dira energia elektrikoa ekoizteko sistema fotovoltaiko mota guztiak, edozein plataforma flotatzailearen gainean instalatuak gainazaleko barruko ur-gorputzetan, eta gutxienez puntu finko baten bidez modu iraunkorrean ainguratuak.

Teknologia fotovoltaikoa baino ezin izango da erabili. Instalazioak isolatuta edo sarean konektatuta egon daitezke, eta sortutako energia saltzera edo autokontsumora bidera daiteke.

Sorkuntza fotovoltaikoko instalazioaren potentziak **500 kWp**-koa edo handiagoa izan behar du. Hala ere, potentzia hori elkartutako instalazioen proiektuen bidez lor daiteke, baldin eta banaka 15 kWp-etik gora eta guztira 500 kW-eko edo gehiagoko potentzia batzen badute.

3. pizgarri-programa: Azpiegituretan biltegitratzea duten berriztagarriak integratzeko proiektu berritzaileak.

Azpiegituretat hartzen dira jarduera bat garatzea ahalbidetzen duten instalazio, eraikin, sistema eta ekipo fisikoen multzoa, bai eta horiei lotutako instalazioak ere.

Energia fotovoltaikoa, elektrikoa edota hidroelektrikoa erabili ahal izango da. Instalazioak isolatuta edo sarean konektatuta egon daitezke, eta sortutako energia saltzera edo autokontsumora bidera daiteke.

Instalazioaren potentziak **200 kWp-koa** edo handiagoa izan beharko du fotovoltaikoen kasuan, eta **200 kW-ekoa** energia eolikoaren zein hidraulikoaren kasuan. Hala ere, potentzia hori elkartutako instalazioen proiektuen bidez lor daiteke, baldin eta banaka 15 kWp-etik edo 15Kw-etik gora eta guztira 200 kW-eko edo gehiagoko potentzia batzen badute.

4. pizgarri-programa: Biltegitratzea eta kontsumitzaile kalteberen parte-hartzea duten autokontsumo kolektiboko proiektu berritzaileak.

Kontsumitzaile kalteberatzat joko da urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuaren definizioa betetzen duena, bertan arautzen baitira kontsumitzaile kalteberaren izaera, bonu soziala eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileak babesteko beste neurri batzuk.

Teknologia fotovoltaikoa edo eolikoa erabili ahalko da. Instalazioak autokontsumo kolektibora soilik bideratu ahalko dira.

Sorkuntza fotovoltaikoko edo eolikoko instalazioaren potentziak **100 kWp** eta **100 kW** baino handiagoa izan behar du hurrenez hurren. Hala ere, potentzia hori elkartutako instalazioen proiektuen bidez lor daiteke, baldin eta banaka 15 kWp-etik gora eta guztira 100 kW-eko edo gehiagoko potentzia batzen badute.

5. pizgarri-programa: Bero-ponpa berriztagarrien instalazioetarako proiektu berritzaileak.

Bero-ponpek 2,415-etik gorako batezbesteko urtaroko energia-errendimendua (SPF) izan beharko dute bero-aplikazioetarako. Hozteko soilik diren aplikazioen kasuan, hozte-sistemaren gutxieneko eraginkortasun betekizunak, energia primarioaren urtaroko errendimendu-faktore gisa adierazita, 1,4 baino handiagoa izan beharko du.

Eskabide bakoitzaren gutxieneko potentzia **500 kW**-ekoa izango da. Hala ere, eskabide berean sartu ahal izango dira banaka 5 kW-etik gora eta guztira 500 kW-eko edo gehiagoko potentzia batzen duten bero-ponpen instalazioen proiektu elkartuak. Eskatzailea jabeen erkidegoa denean, eskabide bakoitzeko gutxieneko potentzia 70 kW-koa izango da.

Gastuetarako aldi hautagarria

Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak egiteko eta laguntzaren xede diren jarduerak gauzatzeko epea **2025eko martxoaren 31ra** artekoa izango da.

Intereseko beste alderdi batzuk

Programa guztietan, sorkuntza fotovoltaikoko instalazioan, jarduketako inbertitzailearen edo inbertsiogileen potentzia nominalaren baturak kWp potentzia maximoaren berdina edo txikiagoa izan beharko du eta 5 kWh/kW-ko sorkuntza-potentziaren aldean instalatutako biltegitratze-ahalmen nominalaren ratioa gainditzen ez duen biltegitratze-ahalmena soilik lagunduko da diruz. Muga horretatik gorako edukiera instalatu ahal izango da, baina adierazitako ratioa gainditzen duen ahalmena ez da inola ere diruz lagunduko.

Biltegitratzeko ahalmen nominalaren gutxieneko ratioa 0,5 kWh/kW-koa da sorkuntza-potentziaren aldean; ez dira onartuko biltegitratzerik gabeko eskaerak, ezta adierazitakoa baino ratio txikiagoa dutenak ere.

Instalazio hidraulikoen kasuan, ez da beharrezkoa izango biltegitratze hori edukitzea, baldin eta justifikatzen bada zentrala bera ratio horren baliokidea den energia biltegitratzeko gai dela, energia potentzial gisa.

Biltegitratzeko berun-azido teknologiak ez dira hautagarriak izango. Horrez gain, biltegitratze-teknologiaren karga eta deskargarako gaitasunaren % 70ak 5 urteko gutxieneko bermea izan beharko du, Europar Batasunaren laguntza teknikoarekin.

Biltegitratze-instalazioek datuen babesari eta zibersegurtasunari buruzko Europako araudia bete beharko dute, SRI2 zuzentarauan adierazitakoarekin bat etorritik.